



---

## A K T A

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren **KUADRILLAKO BATZARRAK** eginiko **ezohiko bilkurarena,**

**2025eko MARTXOAREN 7koa**

**Amurrioko Udalaren osoko bilkuren aretoan, 14:10** direnean, **ezohiko bilkurari** hasiera eman zaio, **lehenengo deialdian, Iñigo Pinedo Vadillo** jauna buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzordekideak bertaratuta. Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

Gentza	Alamillo Udaeta	EAJ-PNV
Eneritz	Alonso Montaña	EAJ-PNV
Monserrat	Angulo Solloa	EAJ-PNV
Ander	Añibarro Maestre	EAJ-PNV
Monika	Arbaiza Beitia	EAJ-PNV
Encina	Castresana Astarloa	EAJ-PNV
Maite	Cortázar Agüera	EAJ-PNV
Ander	Larrinaga Saiz	EAJ-PNV
Txerra	Molinuevo Laña	EAJ-PNV
Iñigo	Pinedo Vadillo	EAJ-PNV
Ixone	Saratxaga Ibarretxe	EAJ-PNV
Estibaliz	Sasiain Furundarena	EAJ-PNV
Juan José	Escuza Del Campo	EAJ-PNV
Aitor	Fernández De Pinedo Rodríguez	EH-BILDU
Ainize	Gastaka Martínez	EH-BILDU
Nekane	Martínez Ormaetxea	EH-BILDU
Prudencio	Otegui Echevarria	EH-BILDU
Angela	Rico Herrería	EH-BILDU
Arkaitz	San José Martínez	EH-BILDU
Joseba	Vivanco Retes	EH-BILDU
Laura	Fernández Fernández	SOCIALISTAS VASCOS- EUSKO SOZIALISTAK



María Dolores      Muriel Aroca

SOCIALISTAS VASCOS-  
EUSKO SOZIALISTAK

Sergio              Tato Eguren

OKONDO AURRERA

Honako batzarkide jaun-andre hauek ez dira bertaratu eta bertaratu ezina adierazi dute:

Nagore              Gomara Picaza  
Estibaliz            Gorostiaga Uriarte  
Oihane              Rodríguez Beraza  
Roberto             Trujillano Agirre  
Nerea                González García  
Iratxe                Parro Uzquiano

EH-BILDU  
EH-BILDU  
EH-BILDU  
EH-BILDU  
OMNIA  
AIARA BATUZ

Castresana Astarloa andrea eta San José Martínez jauna 14:12an bertaratu dira, aztergaien zerrendako lehenengo puntua jorratzen ari zirenean; Vivanco Retes jauna, berriz, 14:14an bertaratu da, aztergaien zerrendako bigarren puntua jorratzen ari zirenean.

**Kuadrillako presidente jaunak, 14:10ean, bilkura hasitzat jo du, lehenengo deialdian,** idazkariak bilkura abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente jaunak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

## **1. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA**

Bilkura honetako deialdiari 2024ko azaroaren 28an egindako aurreko bilkuraren aktaren zirriborroa atxiki zaio, aztertzeko.

Ez da eztabaida gehiagorik sortu; beraz, gaia bozkatu da, eta AHO BATEZ ERABAKI da onestea 2024ko azaroaren 28an eginiko bilkuraren akta.

## **2. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AIARAKO UDALAK "SINDIKATU ZAHARRA" ERAIKINAREN LAGAPENA ALDATZEKO HARTUTAKO ERABAKIA**



Deialdiari **II. ERANSKIN** gisa atxiki zaio Aiarako Udalak Sindikatu Zaharra eraikinaren lagapena aldatzeko hartutako erabakia.

Martxoaren 3an, **PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDEAK** erabaki honen aldeko irizpena eman zuen gehiengoz, aldeko hiru botorekin (EAJ/PNVren hiru), hiru abstentzioren (EH-BILDUren bat (Vivanco jauna), AIARA BATUZEn bat eta OKONDO AURRERAREN bat), eta EH-BILDUren (Otegui jauna) aurkako botarekin.

**IKUSI DA** Kuadrillako Batzarrak 2021eko azaroaren 26an, aztergaien zerrendako zazpigarren puntuan, hartutako erabakia:

**IKUSI DA** Aiarako Udalak, 2023ko otsailaren 23an eginiko ohiko osoko bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki zuela:

*“LEHENENGOA. Adieraztea ados daudela Aiarako Kuadrillari lagatzearekin gaur egun Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina).*

**IKUSI DA** Aiarako Udalak, 2023ko azaroaren 23an egindako ohiko osoko bilkuran, aldatu egin zuela 2023ko otsailaren 23an hartutako erabakia, honela:

*“LEHENENGOA. Adieraztea ados daudela Aiarako Kuadrillari lagatzearekin gaur egun Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina), gutxienez hamabost urteko epean.*

**IKUSI DA** Aiarako Udalak, 2024ko azaroaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran, aldatu egin zuela 2023ko azaroaren 23an hartutako erabakia, honela:

*LEHENENGOA. Adieraztea ados daudela Aiarako Kuadrillari lagatzearekin gaur egun Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina), gutxienez hamabost urteko epean. Epe hori igarota, ulertuko da indarrean jarraitzen duela Aiarako Kuadrillari eraikina erabiltzeko egindako lagapenak, Aiarako Udalaren Osoko Bilkurak kontrako erabakirik hartzen ez duen bitartean. Eraikinaren beheko solairuan dagoen erabilera anitzeko gunean, Aiarako Udalak “Emakumeen Gela” jarriko du. Aiarako Kuadrillako beste jarduera batzuekin partekatuko da gune horren erabilera, baldin eta koordinatu egiten badira bat-etortzeak saihesteko. Aiarako Kuadrilla eta Aiarako Udaleko Berdintasunaren arloko teknikari arduraduna arduratuko dira koordinatzeaz, eta “Emakumeen Gela”ren jarduera lehenetsiko da beti.*

**HAU ERABAKI DA:**



---

**LEHENENGOA:** Onestea Aiarako Udalak lagatzea gaur egun Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina), gutxienez hamabost urteko epean. Epe hori igarota, ulertuko da indarrean jarraitzen duela Aiarako Kuadrillari eraikina erabiltzeko egindako lagapenak, Aiarako Udalaren Osoko Bilkurak kontrako erabakirik hartzen ez duen bitartean. Eraikinaren beheko solairuan dagoen erabilera anitzeko gunean, Aiarako Udalak “Emakumeen Gela” jarriko du. Aiarako Kuadrillako beste jarduera batzuekin partekatuko da gune horren erabilera, baldin eta koordinatu egiten badira bat-etortzeak saihesteko. Aiarako Kuadrilla eta Aiarako Udaleko Berdintasunaren arloko teknikari arduraduna arduratuko dira koordinatzeaz, eta lagapen-akordiotik kendu egingo dute “Emakumeen Gelaren jarduera lehenetsiko da beti” esaldia.

**BIGARRENA:** Aiarako Udalari eskatzea lagapena aldatzeko behar diren izapide guztiak egin ditzala, “Emakumeen Gelaren jarduera lehenetsiko da beti” esaldia sartu gabe.

**HIRUGARRENA:** Aiarako Udalari eskatzea, “Emakumeen Gelaren jarduera lehenetsiko da beti” esaldia kendu ondoren, lagapena gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin ditzala.

**LAUGARRENA:** Kuadrillako presidentea gaitzea lagapen hori gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin ditzan.

**San José Martínez jaunak (EH-BILDU talde politiko batzarkideko bozeramailea den aldetik)** adierazi du kasu honetan Udalak erabaki behar duela lagapena, eta Aiarako Udalaren erabakia errespetatu behar dela; beraz, bere taldea abstenitu egingo da.

Presidente jaunak adierazi du batzordean azaldu zirela erabaki-proposamen honen arrazoiak.

**Otegui Echevarria jaunak (EH-BILDU talde politiko batzarkideko kidea den aldetik)** azaldu du Emakumeen Gelara eskualde osoko emakumeak joaten direla, nahiz eta udal-lokala izan. Orain arte ondo baino hobeto funtzionatu du, Emakumeen Gelaren kudeatzaileek ez dute erabilerari buruzko erabakirik hartuko, gunea modu berean erabiltzen jarraitu nahi da, eta horretarako dago koordinatzailearen figura, nahiz eta inoiz ez zaion lehentasunik ematen.

**Alamillo Udaeta jaunak (EAJ/PNV talde politiko batzarkideko kidea den aldetik)** esan du Emakumeen Gela udalaren eskumena dela, eta Aiarak sortu zuen Arabako lehenengoa aurreko legegintzaldian. Udalak eman eta ordaintzen du zerbitzua. Erabakian lehentasunaz hitz egiten da, hau da, lehenespenaz. Kuadrillak ez du lagapena Udalak onartutako baldintzen arabera onartu behar. Eta orain arte ondo funtzionatu badu, zergatik aldatu behar da?

Presidente jaunak dio bozkatu beharreko erabakia lehentasuna baliogabetzekoa dela.



Ez da eztabaida gehiagorik sortu; beraz, gaia bozkatu da, eta gehiengoz **ADOSTU DA ERABAKI HAU** hartzea, aldeko hamasei botorekin (EAJ/PNVren hamahiru, EUSKO SOZIALISTAKen bi eta OKONDO AURRERAREN bat) eta EH-BILDUREN zazpi abstentziorekin:

**IKUSI DA** Kuadrillako Batzarrak 2021eko azaroaren 26an, aztergaien zerrendako zazpigarren puntuari, hartutako erabakia:

**IKUSI DA** Aiarako Udalak, 2023ko otsailaren 23an eginiko ohiko osoko bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki zuela:

*“LEHENENGOA. Adieraztea ados daudela Aiarako Kuadrillari lagatzearekin gaur egun Aiarako Koadrilaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina).*

**IKUSI DA** Aiarako Udalak, 2023ko azaroaren 23an egindako ohiko osoko bilkuran, aldatu egin zuela 2023ko otsailaren 23an hartutako osoko bilkuraren erabakia, honela:

*“LEHENENGOA. Adieraztea ados daudela Aiarako Kuadrillari lagatzearekin gaur egun Aiarako Koadrilaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina), gutxienez hamabost urteko epean”.*

**IKUSI DA** Aiarako Udalak, 2024ko azaroaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran, aldatu egin zuela 2023ko azaroaren 23an hartutako erabakia, honela:

*LEHENENGOA. Adieraztea ados daudela Aiarako Kuadrillari lagatzearekin gaur egun Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina), gutxienez hamabost urteko epean. Epe hori igarota, ulertuko da indarrean jarraitzen duela Aiarako Kuadrillari eraikina erabiltzeko egindako lagapenak, Aiarako Udalaren Osoko Bilkurak kontrako erabakirik hartzen ez duen bitartean. Eraikinaren beheko solairuan dagoen erabilera anitzeko gunean, Aiarako Udalak “Emakumeen Gela” jarriko du. Aiarako Kuadrillako beste jarduera batzuekin partekatuko da gune horren erabilera, baldin eta koordinatu egiten badira bat-etortzeak saihesteko. Aiarako Kuadrilla eta Aiarako Udaleko Berdintasuneko teknikari arduraduna arduratuko dira koordinatzeaz, eta “Emakumeen Gela”ren jarduera lehenetsiko da beti”.*

#### **HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA:** Onestea Aiarako Udalak lagatzea gaur egun Aiarako Kuadrillaren bulegoak dauden eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoko 2. zenbakian (Sindikatuaren eraikina), gutxienez hamabost urteko epean. Epe hori igarota, ulertuko da indarrean jarraitzen duela Aiarako Kuadrillari eraikina erabiltzeko egindako lagapenak, Aiarako Udalaren Osoko Bilkurak kontrako erabakirik hartzen ez duen bitartean. Eraikinaren beheko solairuan dagoen erabilera anitzeko gunean, Aiarako



---

Udalak “Emakumeen Gela” jarriko du. Aiarako Kuadrillako beste jarduera batzuekin partekatuko da gune horren erabilera, baldin eta koordinatu egiten badira bat-etortzeak saihesteko. Aiarako Kuadrilla eta Aiarako Udaleko Berdintasunaren arloko teknikari arduraduna arduratuko dira koordinatzeaz, eta lagapen-akordiotik kendu egingo dute “Emakumeen Gelaren jarduera lehenetsiko da beti” esaldia.

**BIGARRENA:** Aiarako Udalari eskatzea lagapena aldatzeko behar diren izapide guztiak egin ditzala, “Emakumeen Gelaren jarduera lehenetsiko da beti” esaldia sartu gabe.

**HIRUGARRENA:** Aiarako Udalari eskatzea, “Emakumeen Gelaren jarduera lehenetsiko da beti” esaldia kendu ondoren, lagapena gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin ditzala.

### **3. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AIARAKO KUADRILLAREN IZENA ALDATZEKO AKORDIOA**

Deialdiari **III. ERANSKIN** gisa atxiki zaio izen-aldaketaren justifikazio-memoria.

Martxoaren 3an, PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDEAK jarraian jasotako akordioaren aldeko irizpena eman zuen aho batez.

**IKUSI DA** Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua.

**IKUSI DA** izena aldatzeko justifikazio-memoria.

**HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA.-** Aiarako Kuadrillaren izena aldatzea eta “Aiaraldeko Kuadrilla / Cuadrilla de Aiaraldea” izan dadin onestea.

**BIGARREN.-:** Kuadrillako presidenteari eskatzea Kuadrillaren izena aldatzeko behar diren jarduerak egin ditzala, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 61. eta 62. artikuluekin bat.

Irizpenean emandako erabakia bozkatzeko proposatu da. Onetsi ahal izateko, Udalbatzako kideen lege-kopuruaren gehiengo osoak onetsi behar du; hau da, aldeko 15 boto behar dira.

Ez da eztabaida gehiagorik sortu; beraz, gaia bozkatu da, eta gehiengoz **ADOSTU DA ERABAKI HAU** hartzea:



---

**IKUSI DA** Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua.

**IKUSI DA** izen-aldaketaren justifikazio-memoria.

**HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA.** - Aiarako Kuadrillaren izena aldatzea eta “Aiaraldeko Kuadrilla / Cuadrilla de Aiaraldea” izan dadin onestea. Euskarazko izen berria “Aiaraldeko Kuadrilla” izango da, eta gaztelaniaz “Cuadrilla de Aiaraldea”.

Bi izenak elkarrekin agertzen direnean, honela idatzi beharko dira: Aiaraldeko Kuadrilla / Cuadrilla de Aiaraldea.

**BIGARRENA.**- Kuadrillako presidenteari eskatzea Kuadrillaren izena aldatzeko behar diren jarduerak egin ditzala, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 61. eta 62. artikuluekin bat.

#### **4. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA, BAITA LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN AGIRIAK ERE**

Deialdiari **IV. eta V. ERANSKIN** gisa atxiki zaio zerbitzuaren lizitazioari dagokion dokumentazioa.

Martxoaren 3an, INGURUMENA INFORMAZIO BATZORDEAk erabaki honen aldeko irizpena eman zuen gehiengoz; bozketa honako hau izan zen: aldeko bost boto (EAJ/PNVren hiru, EH BILDUren bat eta AIARA BATUZen bat), eta OKONDO AURRERAREN abstentzio bat.

**IKUSI DA** Kuadrillako Batzarrak 2017ko ekainaren 29an, aztergaien zerrendako bosgarren puntuan, hartutako erabakia, non Aiarako Kuadrillari hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren eskumenak eskuordetu eta ematen zaizkion.

**IKUSI DA** Aiarako Kuadrillan etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko beharra.

**IKUSI DA** 2025/41 espedientean jasotako dokumentazioa: agiriak, txosten juridikoa, aurretiazko beharraren txostena, txosten ekonomikoa.

**IKUSI DA** 2025. urterako luzatutako aurrekontuetan eta aurrekontuen aurreproiektuan kreditua dagoela esleituta.

**HAU ERABAKI DA:**



**LEHENENGOA.-** Onestea urte bakoitzeko Kuadrillaren Aurrekontu Orokorretan Aiarako Kuadrillan “Etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua” kontratatzeko prozeduraren agiri arautzaileen ondoriozko zenbatekoa ber gain hartzeko kreditu nahiko eta egokia duen aurrekontu-aplikazioa esleitzeko konpromisoa hartzea.

**BIGARRENA.-** Onestea Aiarako Kuadrillan “Etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren” lizitazioa, 2.044.274,85 euroko urteko aurrekontukoa, BEZa barne.

**HIRUGARRENA. -** Onestea Aiarako Kuadrillan “Etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren” lizitazioa arautuko duten agiriak.

**LAUGARRENA. -** Aiarako Kuadrillako presidentea gaitzea zerbitzua lizitatzeko beharrezkoak diren izapide guztiak egin ditzan.

Egun horretan bertan, OGASUNA, FINANTZAK, AURREKONTUAK, SUSTAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA BERRIKUNTZA ETA TURISMOA INFORMAZIO BATZORDEAK akordioaren lehenengo eta bigarren puntuen aldeko irizpena eman zuen gehiengoz; bozketa honako hau izan zen: aldeko bost boto, (EAJ/PNVren hiru, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen bat eta AIARA BATUZen bat) eta bi abstentzio, (EH BILDUrena bat eta OKONDO AURRERAre bat).

**San José Martínez jaunak (EH BILDU talde politiko batzarkideko bozeramaile den aldetik)** adierazi du zerbitzua eman behar dela eta prozedurarekin jarraitu behar dela. Kexatu da, ez baita inoiz iristen zerbitzua bera eta horren emaitzak aztertzeko unea. Badirudi enpresek beren burua aurkeztea eta zerbitzua ematea espero dutela, nahiz eta hobekuntzak egiten saiatu diren eta zerbitzua indartzean lizitazioa hutsik geratu den. Zerbitzua emateko beste modurik dagoen aztertu behar da. Ez da lortu organikoa behar bezala murriztea, ontzietan egokiak ez diren hondakinak murriztea... Agiriak zerbitzua mantentzeko daude; hortaz, adierazi du abstenituko direla.

**Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politiko batzarkideko bozeramaile den aldetik)** adierazi du azken batzordean ez zela ezer esan. Legealdian eredia ez da mahai gainean jarri, baina 2015-2019 legealdian aztertu zen. Batzordean bilketei eta karakterizazioei buruzko datuak eman dira. Zerbitzua udalerrien beharretara egokitzen da; zerbituetako batzuk udalerrri batzuetan edo bakarrean ematen dira. Hutsik geratu den bigarren aldia da; kasu honetan, agiria zerbitzuari doitu dago, eta espero da orain enpresek eskaintzak egitea, eta taldeek egin duten lana aitortu nahi dute.

**San José Martínez jaunak (EH BILDU talde politiko batzarkideko bozeramaile den aldetik)** erantzun du ez duela puntu hau partiduen arteko eztabaida bihurtu nahi. Guztion ardura da etorkizunari begiratzea, eta berak aldeko botoa eman zuen batzordean. Hala ere, batzordean adierazi zuen hobekuntzak egiten saiatzen direnean



---

enpresek ez dituztela eskaintzak aurkezten; inoiz gelditu eta egoera aztertu beharko dute. Koherenteak izatearren, abstenitzea erabaki dute.

**Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politiko batzarkideko bozeramaile del aletik)** amaitzeko adierazi nahi du eredia ez zela batzordean eztabaidatu, baina San José jaunak adierazitako gainerako puntuak bai.

Ez da eztabaida gehiagorik sortu; beraz, gaia bozkatu da, eta gehiengoz **ADOSTU DA ERABAKI HAU** hartzea, aldeko hamabost botorekin (EAJ-PNVren hamahiru eta **SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK**en 2) eta 3 abstentziorekin (EH BILDUren zazpi eta **OKONDO AURRER**Aren bat):

**IKUSI DA** Kuadrillako Batzarrak 2017ko ekainaren 29an, aztergaien zerrendako bosgarren puntuan, hartutako erabakia, non Aiarako Kuadrillari hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren eskumenak eskuordetu eta ematen zaizkion.

**IKUSI DA** Aiarako Kuadrillan etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko beharra.

**IKUSI DA** 2025/41 espedientean jasotako dokumentazioa: agiriak, txosten juridikoa, aurretiazko beharraren txostena, txosten ekonomikoa.

**IKUSI DA** 2025. urterako luzatutako aurrekontuetan eta aurrekontuen aurreproiektuan kreditua dagoela esleituta.

#### **HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA.-** Onestea urte bakoitzeko Kuadrillaren Aurrekontu Orokorretan Aiarako Kuadrillan “Etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua” kontratatzeko prozeduraren agiri arautzaileen ondoriozko zenbatekoa ber gain hartzeko kreditu nahiko eta egokia duen aurrekontu-aplikazioa esleitzeko konpromisoa hartzea.

**BIGARRENA.-** Onestea Aiarako Kuadrillan “Etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren” lizitazioa, 2.044.274,85 euroko urteko aurrekontukoa, BEZa barne.

**HIRUGARRENA.** - Onestea Aiarako Kuadrillan “Etxeko eta antzeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren” lizitazioa arautuko duten agiriak.

**LAUGARRENA.** - Aiarako Kuadrillako presidentea gaitzea zerbitzua lizitatzeko beharrezkoak diren izapide guztiak egin ditzan.

## **5. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2025erako AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA**



---

Dokumentazioari **VI. eta XI. bitarteko ERANSKIN** gisa atxiki zaio 2025erako Aurrekontuen Aurreproiektua.

Martxoaren 3an, OGASUNA, FINANTZAK, AURREKONTUAK, SUSTAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA BERRIKUNTZA ETA TURISMOA INFORMAZIO BATZORDEAK **ERABAKI** honen aldeko irizpena eman zuen gehiengoz, aldeko bost botorekin (EAJ/PNVren hiru, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen bat eta AIARA BATUZen bat) eta bi abstentziorekin (EH BILDUren bat eta OKONDO AURRERAre bat).

**IKUSIDA** Arloko teknikariak aurkeztutako 2025eko ekitaldirako aurrekontuaren proiektua.

**HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA:** Hasiera batean onestea 2025erako Aurrekontua, Gastu eta Sarreretarako ZORTZI MILOI, BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA, LAUREHUN ETA BERROGEI EURO ETA HOGEI ZENTIMOKO zenbatekoarekin (8.577.440,20 €).

**BIGARRENA:** - Kuadrillako presidenteari eskatzea behin betiko onesteko behar diren izapideak egin ditzala.

Ez da eztabaida gehiagorik sortu; beraz, gaia bozkatu da, eta gehiengoz **ADOSTU DA ERABAKI HAU** hartzea, aldeko hamabost botorekin (EAJ-PNVren hamahiru eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen 2) eta 3 abstentziorekin (EH BILDUren zazpi eta OKONDO AURRERAre bat):

**IKUSIDA** Arloko teknikariak aurkeztutako 2025eko ekitaldirako aurrekontuaren proiektua.

**HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA:** Hasiera batean onestea 2025erako Aurrekontua, Gastu eta Sarreretarako ZORTZI MILOI, BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA, LAUREHUN ETA BERROGEI EURO ETA HOGEI ZENTIMOKO zenbatekoarekin (8.577.440,20 €).

**BIGARRENA:** Kuadrillako presidenteari eskatzea behin betiko onesteko behar diren izapideak egin ditzala.

Bozketa amaitu ostean, presidente jaunak eskatu du taldeek abstentzioak arrazoitu ditzatela, ez baitute ekarpenik egin aurrekontuak izapidetu bitartean.



**Tato Eguren jaunak (OKONDO AURRERA talde politiko batzarkideko bozeramailea den aldetik)** azaldu du kontraturik garrantzitsuenean abstenitu direla, hau da, HHSen kudeaketaren kontratuan, eta gauza bera egin dutela aurrekontuekin.

**José Martínez jaunak (EH BILDU talde politiko batzarkideko bozeramailea den aldetik)** azaldu du ez dela abstenitu diren lehenengo aldia; aurrekontuetan ematen diren zerbitzuak daude, kontinuistak dira, eta ausartagoak izan ahal ziren proposamenekin.

## **6. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, MARTXOAREN 8rako, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNERAKO, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Otsailaren 13an, GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEAK aho batez honako adierazpen honen aldeko irizpena eman zuten:

### **2025eko martxoaren 8rako Aiarako Kuadrillaren Adierazpena**

*Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza  
Plataformaren 30. urteurrena; hiru  
hamarkada berdintasunaren bidean*

Gaur, 2025eko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma adopzioaren 30. urteurreneko ospakizunarekin bat egin nahi dugu. 1995ean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian adostutako akordioek genero-berdintasuna, emakume eta neska guztien ahalduntzea eta giza eskubideak gauzatzeko munduko ibilbide-orria abian jarri zuten.

Ibilitako azken 3 hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina bilakaera desorekatua izan da eta oraindik munduko herrialde bakar batek ere ez du lortu emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna. Hala eta guztiz ere, berdintasun-indizeek aurrerapena nabarmena izan dela

### **Declaración de la Cuadrilla de Ayala con motivo del 8 de marzo de 2025**

*30 aniversario de la Declaración y  
Plataforma de Acción de Beijing; tres  
décadas avanzando hacia la igualdad*

Hoy, 8 de marzo de 2025, con motivo del día Internacional de las mujeres, queremos unirnos a la conmemoración del 30 aniversario de la adopción de la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing, durante la IV Conferencia Mundial sobre la Mujer, que tuvo lugar en Beijing en 1995. Estos acuerdos pusieron en marcha la hoja de ruta mundial para lograr la igualdad de género, el empoderamiento de todas las mujeres y niñas y la realización de sus derechos humanos.

En tres décadas de recorrido se han dado avances importantes, pero la evolución ha sido desigual y todavía ningún país en el mundo ha alcanzado la igualdad de género entre mujeres y hombres. Así y todo, los índices de igualdad muestran que el avance ha sido notable en aquellos contextos en los que el desarrollo



erakusten dute, berdintasun-politiken araudi- eta erakunde-garapena eta mugimendu feministaren bultzada iraunkorra bateratu diren testuinguruetan.

30. urteurren horrek konpromisoak eta borondateak berritzeko aukera ematen digu, Beijingen adostutako berdintasunaren helburuak lortzeko, beharrezkoak diren baliabideak bideratuz, erronkei eta oraindik dirauten oztopoei aurre egiteko. Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek boteretzerara ere eramán beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza honi, Politika Feminista deritzogu, “emakumeen gaiak” eskinatik atera eta unibertsal bilakatzerara jo nahi dugu.

Euskal erakundeek eta, bereziki, tokiko gobernuek, 30 urte hauetan metatutako ebidentzia dute, eta horrek agenda feminista globalean oinarritutako berdintasun-politiken bermatu eta legitimatu egin du.

Euskal udalek eta kuadrillek genero-berdintasunaren lorpena bizkortzeko mundu-mugimenduarekin bat egin dute, emakumeen eta nesken ahalduntzearen eta emakumeen eskubideen defentsaren aldeko apustua eginez. Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Udalek behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

normativo e institucional de las políticas de igualdad han confluído con el impulso sostenido del movimiento feminista.

El 30º aniversario es la oportunidad de renovar los compromisos y voluntades para alcanzar las metas acordadas en Beijing, movilizando los recursos necesarios para afrontar los desafíos y enfrentar los obstáculos que aún persisten. Tenemos que ser conscientes de esta situación y las políticas públicas que respondan a ella deberían llevar asociado el empoderamiento de las mujeres. Para ello es imprescindible llevar a cabo una Gobernanza Feminista. A esta gobernanza, la llamamos Política Feminista, queremos sacar de la periferia “los temas de las mujeres” y convertirnos en universales.

Las instituciones vascas, y los gobiernos locales en especial, cuentan con la evidencia acumulada en estos 30 años, que avala y legitima las políticas de igualdad basadas en la agenda feminista global.

Por ello, los ayuntamientos y cuadrillas vascas se suman al movimiento mundial para acelerar el logro de la igualdad de género, apostando por el empoderamiento de mujeres y niñas y la defensa de los derechos de las mujeres. Para ello, es necesario coordinar las instituciones y abrir cauces para que la ciudadanía participe de forma real y efectiva en las decisiones públicas, especialmente los colectivos diversos de mujeres y los movimientos feministas. Los ayuntamientos tenemos que hacer frente de manera adecuada a la gran responsabilidad pública que tenemos, y eso hay que hacerlo desde las premisas feministas, impulsando la articulación y la participación, elaborando planes y



Tokiko eremutik arlo kritiko globaletan aurrera egiten laguntzeko, Aiarako Kuadrillak ondorengo konpromisoak hartuko ditu:

- Sustapen-egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko politikak garatzeko, Berdintasunerako Politika Publikoen Kalitate-Estandarren arabera.<sup>1</sup>
- Emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea, horien bidez, berdintasun politika publikoetan, emakumeak solaskideak izan daitezen eta eragin dezaten.
- Mugimendu Feministarekin batera Zaintzen aldeko Herri Akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, Zaintza mahaietan besteak beste.
- Berdintasun zein Barne Planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzeari sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.
- Tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea.<sup>2</sup>
- Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria

programas transformadores, atendiendo las emergencias y posibilitando todos los recursos necesarios.

Con el fin de contribuir desde el ámbito local al avance en las áreas críticas globales, la Cuadrilla de Ayala se compromete a:

- Dotarse de las estructuras para desarrollar políticas de igualdad y lucha contra la violencia machista, con los recursos y el personal suficiente, acorde a los Estándares de Calidad de las políticas públicas de igualdad<sup>1</sup>.
- Impulsar el asociacionismo de mujeres y feminista como base para la interlocución y la incidencia de las mujeres sobre las políticas públicas de igualdad.
- Unirse al Movimiento Feminista en el Acuerdo Social por los Cuidados y llevar a cabo los puntos trabajados en espacios compartidos como las Mesas de Cuidados.
- Continuar trabajando en el modelo de gobernanza y en el establecimiento de cauces para promover el empoderamiento de las mujeres a través de los Planes de Igualdad e Interior.
- Adoptar acuerdos para crear condiciones que faciliten la participación e incidencia igualitarias de mujeres y hombres en los gobiernos locales<sup>2</sup>.
- Actualizar los protocolos locales de atención y coordinación para la reparación de las víctimas y

<sup>1</sup> Ikus 2018ko abenduaren 12koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearena, zeinaren bidez *Berdintasun Politiken Kalitate Estandarrak* ezartzen diren.

<sup>2</sup> Ikus “*Udalentzako gomendioak, emakumeek tokiko gobernuetan parte hartzeko baldintzak errazteko*”, EUDELEk udalei bidalitakoak 2023ko maiatzaren 29an.



matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko.

- Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.
- Zaintzen ekonomia eraldatzeko tokiko prozesuak abian jartzea, ikuspegi feministatik.
- Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko tokiko ekintza-planetan jasotako agenda feministen gaineko kontuak ematea, aldian-aldian.
- Mugimendu Feministak herrian/herrialdean bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta Martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.
- Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.

supervivientes de la violencia machista contra las mujeres.

- Desarrollar programas de prevención de la violencia machista entre la ciudadanía, movilizando especialmente a los hombres y niños.
- Poner en marcha procesos locales de transformación de la economía de los cuidados desde el enfoque feminista.
- Rendir cuentas periódicamente en relación con la agenda feminista recogida en los planes de actuación local en materia de igualdad y lucha contra la violencia machista.
- Sumarse a la dinámica que impulsará el Movimiento Feminista en el municipio/país y apoyar las convocatorias del 8 de marzo, haciendo un llamamiento a la ciudadanía para que acuda.
- Reconocimiento de la aportación y el trabajo del Movimiento Feminista en la consecución de una sociedad justa e igualitaria.

Arespalditzan, 2025eko martxoaren 8an

*En Respaldiza, el 8 de marzo de 2025*

Ez da eztabaida gehiagorik sortu; beraz, gaia bozkatu da, eta **AHO BATEZ ADOSTU DA** martxoaren 8ko adierazpen instituzionala onestea.

## **7. ONETSITAKO AZKEN PRESIDENTETZA-DEKRETUEN BERRI EMATEA**

**IV. ERANSKIN** gisa atxiki da onetsitako azken dekretuen zerrenda.

Ez da horri buruzko aipamenik egin.



---

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, lege-aginduz, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:36 denean**. Akta hau presidente jaunak sinatu du eta nik, behin-behineko idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

**PRESIDENTEA: Stua.: Iñigo Pinedo Vadillo**

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI KONTU HARTZAILEA: Stua.:  
Gianfranco Ghiro Alonso**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**